



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

574/2014 FORU AGINDUA, urriaren 28koa, Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen pasahitz operatiboa arautzen duena.

7. artikulua. Pasahitz operatiboa baliogabetzea eta baliagarritasuna galtzea.

1. Pasahitz operatiboa kasu hauetan baliogabetu eta galduko du baliagarritasuna:

a) Titularrak edo interes legitimoa duen hirugarren batek hala eskatzen duenean.

b) Pertsona fisiko titularraren heriotza gertatzen denean, edo pertsona juridikoa iraungitzen denean.

c) Eman zenetik 4 urteko epea igarotzen denean.

d) Pasahitza egin eta emateko egiaztatutako zirkunstantziak edo ordezkari-tzako ahalmenei buruzkoak aldatzen direnean, haiek errealitatearekin bat ez etortzeraino.

e) Pasahitz operatiboa galdu edo ebatsi denean.

f) Administrazioak ebazpen bidez hala erabakitzen duenean. Ebazpen horrek arrazoitua izan behar du.

2. d) eta e) kasuetan, titularrak eskatu behar du pasahitz operatiboa baliogabetzea, eta eskatzen den unetik beretik geratuko da baliogabetuta. Horretarako, titularrak bere identitatea frogatu behar du, foru agindu honetako

3.2 artikuluan aipatzen diren agirietako edozein aurkeztuta, edo, eskaera telefonoz eginez gero, datu jakin batzuk emanda.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiak beretzat gordetzen du pasahitz operatiboa deuseztatzeko eskubidea, okerreko sarrerak elkarren segidan egiten direnean, erabilera egokiari buruz edo identitatea edo ordezkaritza frogatzeko agirien indarraldiari buruz arrazoizko zalantzak daudenean, edo bestelako arrazoiak gertatzen direnean. Pasahitza deuseztatzeko, ebazpen arrazoitua eman behar du Ogasun eta Finantza Departamentuak, eta ebazpen hori deuseztatutako pasahitzaren titularrari jakinarazi behar zaio. Horri begira, Gipuzkoako Foru Aldundiaren barruan gorabeheraren bat ezagutzen bada pasahitz operatiboa deuseztatzeko arrazoi izan daitekeena, haren berri eman behar zaio Ogasun eta Finantza Departamentuari.